

⇒ Hizpide ⇒

Haur- eta gazte-literatura emanaldika: bildumak, serieak eta sagak

Seve Calleja

Iñaki Mendigurenek itzulita



Oso ugariak izan arren, ez litzateke zuzena izango esatea saga eta obra seriatuak literaturan ematen direnik soilik, izan ere, aurrekoan bezain beste ematen baitira zineman eta TBn.

Egia zera da: haur eta gazteentzat argitaraturiko liburuen artean, haur-komiki eta album formatuetatik liburuko argitalpenetaraino, protagonista edo talde ezagun baten inguruko sortze-lanak (*Bostak*, *Harry Potter*, *Espacio Flanagan*, *Bob Esponja*, *Caiyou*, *Gerónimo Stilton*, *Nur*, *Kika*, *Greg*, *Bambulo*, *Garmendia*...) haur- eta gazte-literaturari estu loturiko liburu –eta literatura– mota bat dira. Badira eta izan



dira. Salgarik bere lanak idazten zituen, eta, gero, berak edo haren argitaratzaileek serieka multzokatzen zituzten: Sandokanen abenturak 11 nobelatan argitaratu ziren, eta, gero, horrela zabaldu zituen hemen Calleja argitaletxeak, eta, gero, Molinok, 70eko telebista-serie arrakastatsuan agertu baino askoz lehenago, berriro paperera eramanez Gahe argitaletxeak. Garbi dago ondoz ondoko abenturetan bizitzeko sortzen zela malaysiar pirata. Baina ez dago hain garbi *Marcelino Pan y Vino* saritua bokazio berarekin sortu zenik; are gehiago dirudi haren idazleak, J. M^a Sánchez Silvak, zineman lortu zuen arrakasta biribilaren eta sarien ondoren, umezurtz xumearen bizitza luzatu nahi izan zuela fraide abegitsuek kontatzen zizkioten istorioekin (*Historias menores de Marcelino Pan y Vino*) edo heriotzaz haratago amaren bila eramanez nahi izan zuela (*Aventuras en el cielo de Marcelino Pan y Vino*). Eta oso antzeko zerbait gertatuko zitzaion urte batzuk geroago haren emulatzaile *Fray Perico*-ri. Adibide solte batzuk baino ez dira.

Saga familia edo leinu baten kontakizun luze eta emanaldika dosifikatua da (*Eraztunen jauna*); seriea, berriz, kontakizunaren segida da, argumentu desberdinak baina pertsonaia, ekintzak eta denbora berdinak dituenak. Eta zinema eta TBrako balio duen hau (*Loca academia de policía/Polizia Akademia Eroa, Tiburón/Marrazoa* edo *Los Simpsons/Simpsondarrak*) literaturara iritsi da —edo aurrez bazegoen bertan—. Zinemak eta literaturak, narrazio-baliabideak diren neurrian, horren ugaritasunean eta merkataritza-marka izateko moduan parte hartzen dute. Kontakizun inguratzaile zabalak eraikitzen dituzte ondoz ondoko istorioak sartzen direlarik bertan, bakoitza multzoko besteak ez bezalakoa argudioari dagokionez eta aldi berean antzekoa bere protagonistetan, oso etxekotzat dauzkatelarik irakurleek. Eta horixe da iraunkor aldakorren magia, ipuin tradizionalen sortua eta masako literatura-produktuaren egitura sakonean mantendu dena: nobela herrikoitik (arrosa, poliziako, *western* edo beldurrezkoetik) komikiraino, eta tartean haur- eta gazteentzako-narratiba, albuma eta liburua gaindituz, zinema, telebista eta bideo-jokoraino doana (*Tintin*,

Crónicas de Narnia/Narniaren Kronikak, Harry Potter, Crepúsculo/Ilunabarra, Las tres mellizas/Hiru bikiak...) eta alderantziz (Bob Esponja, Pocoyo, Hannah Montana edo Disney-ren sorkuntzetako asko).

Baina ez da leku eta protagonisten batasuna, egoera ezagunetara jotzea «hau da, irakurleari ezagunak zaizkion elementuak behin eta berriro agertzea» bakarrik liburueta sagak eta serieak elikatzen dituen, baita, eta batez ere, argitaratzaileak inprimatzen duen diseinua da. Eta lehenengo galdera izango litzateke ea haur eta gazteentzat egini-ko literaturaren zati handi baten sostengu diren serie eta saga horiek errentagarritasun-fenomenoa baino zerbait gehiago ba ote diren. Horixe da, hain zuzen, Euskal Herriko Unibertsitateko J. C. Miguel, R. Eizagirre, E. López eta J. Oter irakasleek serie eta saga zinematografikoen arrakastaz egindako azterketan planteatzen dutena.¹ Ikus-entzunezko produkziara bideratu duten hausnarketatik, kako edo giltzarri batzuk atera ahal izango genituzke haur- eta gazte-literaturaren funtzionamenduaz haren produkzioaren eta errentagarritasunaren ikuspuntutik. Adibidez, izen ospetsuetara jotzea markadun pertsonaiengana hedatzen dela, marketin bidez irakurle-kontsumitzaileen zerrenda edo poltsa jakin batzuen fidelizazioa lortu nahi izaten dutelarik.

Gemma Llunch valentziar irakasleak, Txilen egindako haur- eta gazte-hizkuntza eta literaturako iberoamerikar biltzarrerako txostenean azterketa sakona egin zuen haurrentzako narrazio-diskurtsoaren ezaugarriei eta joerei buruz irakurtzeko euskarri berrietan. Literatura kanonikoan, literatura-lan bakana, berria eta apurtzailea delako da orijinala; kultura herrikoian, berriz, aurrez dauden parametroak entzuleria berri batentzat arrakastaz egokitzen dituen da berria:

Bada irakurle berri bat ohiko bitartekariak baztertzen dituen: maisuaren edo aitaren zaintzapetik kanpo, berak ezartzen ditu joerak. Irakurtzen duen baina begiratu ere egiten duen irakurlea, hartzen eta proposatzen duena, onartu eta iritzia ematen duena; kontakizunak formatu guztietan kontsumitzen dituen, liburutik pantailara igaroz, irakurketatik idazketara,



1. J. C. Miguel edo besterik: «Factores de éxito de las series y sagas», *Ámbito*, 11-12. zk., Sevillako Unibertsitatea, 2004.



2. G. Llunch: *Lij y audiovisuales: de sagas y series*, Congreso Iberoamericano de Lengua y Literatura Infantil y Juvenil, 2011, SM Fundazioa, Madril, 2011.

testutik YouTubeko aurkezpenetara, eta komunikaziorako funtsezkotzat mundu birtuala ezartzen duena. Beraz, irakurleak ez du bere kultura -nortasuna kultura edo nazionalitate historiko batetik eraikitzen, baizik eta bere nortasun-ezaugarria kontsola, telebista, liburu, ordenagailu edo zineman zirkulatzen duten kontakizunen kontsumoak zertzen du. [...] Fikzio-mundu bat sortzen da serieko kontakizuna sortzea ahalbidetzen duena. Honela jakin-mina sortzen da, eta funtzionatzen baldin badu, seriean zehar mantendu egingo da, eta nobedade izateari utzi baina berri gisa aurkezten diren antzeko beste kontakizun batzuk berpizten ditu (hori gertatu zen Narniaren Kronikak-ekin Harry Potter-en arrakastaren ondoren, edo *Las Crónicas Vampíricas/Banpiro Kronikak-ekin Crepúsculo/Ilunabarra-ren ondoren*).²

Historia apur bat

XIX. mendera, zinema sortu baino lehenagora, jo behar da Sherlock Holmes bezalako pertsonaiak (gero zineman izango dira beste batzuk, Charlot edo Potoloa eta Argala) emanaldi berri bakoitzean berrager

daitezen, baliabide berberekin eta ingurune berean erronka berri eta antzekoei aurre egiteko. Jarraitutasun-eredu hori, emanaldikako nobelaren ezaugarria, gero serieetara iritsiko da eta berehala zinemara salto egingo du. *Sandokán* edo *El Zorro/Azeria* idazleak bere sorkaria eta zinemagileak bere izar-intsignia nola ustiatzen duten erakusteko paradigma izan daitezke: Conan Doylek bere Sherlock Holmes, eta *20th Century Fox* edo *Universal*-ek Basil Rathbone.

XX. mendearen hasieran ipuinaren eta nobela laburraren arrakasta *El Cuento Semanal*, *Blanco y Negro* edo *Los Contemporáneos*—eta gure ingurunean, *Vida Vasca* edo *Euskalerriaren alde*— moduko aldizkariaren ugaritasunak indartzen zuen. Luzera ertaineko kontakizunak poltsiko guztietarako zabaltzen ziren bilduma herrikoietan; adibidez, *El Cuento Semanal*-ek (1907-1912), Eduardo Zamacois-ek zuzenduta, hirurehun bat nobela labur argitaratu zituen urte haietan, garaiko ehun idazle espainiar baino gehiagorenak; *La novela corta* (1916-1925), José de Urquía argitaratu zuen; edo *La Novela Semanal* (1921-1925), Prensa Gráfica.

Gerra ondoko nobela herrikoiak bultzada handia izan zuen 40ko hamarkadan, eta iraganetik zetorren eta lehen aipaturiko asteroko foiletoi edo bildumetan zabaltzen zen emanaldikako nobelaren txanda hartu zuen. Clíper, Bruguera, Molino edo Juventud, Cíes, edo Bilboko Pluma, Familia edo Zorrilla argitaletxeek, beren liburu sortak eta bildumak merkaturatu zituzten: *La Novela Rosa*, *Biblioteca Oro*, *Hombres Audaces*, *Colección Misterio*, bakoitza bere genero edo narrazio-modalitateari eta bere idazleei atxikia. Honela, adibidez, Cíes argitaletxearen *Rodeo* bildumak José Mallorquí-ren *western* nobelak ustiatzen zituen, eta Bruguera-k Corín Telladoren kontakizun erromantikoak eta Marcial Lafuente Estefanía-ren *western* nobelak zabaltzen zituen kioskoetan.

Heroi mendekati eta justizia zale zorrotza —sarri maskaratua—, bere nortasun bikoitzarekin, ikusgai duena (gizon errespetagarri edo anoni-moarena) eta ezkutuan duena (arranguratsu eta mendekatiarena), Robin Hood, el Cisne Negro/Beltxarga Beltza edo Sandokán gisako abentura-serieetako protagonista handien antzeratzailea, el Coyote/Koiotea, el Zorro/Azeria, el Pirata Negro/Pirata Beltza edo Pat Morgan gangsterrean hezurmamitzen da orain. Eta euskarri batetik beste batera salto egiten dute batzuek: nobelatik edo komikitik zinemara, adibidez, *El Coyote*/





Koiotea. Beste batzuk, hainbat atalen ondoren, adibidez Bruguerearen *El Pirata Negro*-k 85 atal izan zituen 1946. eta 1949. urteen artean, irakurle helduentzat izatetik gazteentzat izatera igaro ziren: *Pequeños libros para muchachos* izan zen argitaletxe berak egin zuen egokitzapena. Izan ere, horrelako nobela herrikoia aurrez asmatuturiko eskema edo patroia batera egokitzen da, edozein gaitara egokitzeko gauza dena: heroia da guztiaren gaineratik ezarritako ordenaren alde egiten duena, eta ordena hori da antiheroia apurtu nahi duena, eta, egoerak bere lekuan jarrai dezan, hots, bilbe edo argumentu-trama itxi eta beste entrega batean berriro irekitzeko, ordena horrek berrezarrita geratu behar du amaiera zoriontsu bakoitzean. Era horretan, irakurlea ohartuko da arriskua nonahi dagoela zain, lege-urratzaileak edonoiz sortzen direla, gutxienez behin nobela bakoitzean: azken batean, zintzoen eta gaiztoen arteko borroka etengabea da.

Eta, halaber, bide horretatik ibili izan dira serie ugariak, espainiarrak eta atzerriarrak, batzuk besteen klonak, gure nagusien haur-irudimena elikatu izan

dutenak: *Pinocho y Chapete*, Bartolozzi-rena, Calleja argitaletxean; *Celia*, Elena Fortún-ena (Encarnación Aragoneses-en seudonimoa); *Antoñita la Fantástica*, Borita Casas-ena; *Oscar*, Carmen Kurtz-ena; *Los Blok*, Montserrat del Amo-rena; *Los Machafatos*, Consuelo Armijo-rena... Horiei beste batzuk gehitu behar zaizkie, guretzat ezagunagoak hurbi-leakoagoak direlako, frankismo ostean argitaletxeek izandako goraldian beste hizkuntza batzuetatik etorriak: Everest, Alfaguara, Altea, Timun Mas, La Galera, Anaya, SM, Edelvives, Edebé, Algar edo Bambú: *Téo*, *Sapo y Sepo*, *Babar*, *César y Ernestina*, *Asterix*, *Nikolas Txiki*, *El Club de los Cinco/Bostak*, *Guillermo Brown*, *Los Hollister*, *Los misterios de Laura Marlin* (Bambú), *Agatha Mystery* (la Galera), *Kika Superbruja* (Bruño), *Cuatro amigos y medio* (Edebé), *Cazadores de Sombras*, *Crónicas Vampíricas* (Planeta) edo *Geronimo Stilton* arrakastatsua (Destino), jakina...

Liburua merkatu-produktu bihurtzen denean merkataritza-lehiaren arriskuak jasan behar ditu, eta merkaturatzea eta sustapena besteak

beste faktoreak aztertu. Honela, sagen *klub-efektua*, zinema fantastikoari hain atxikia, literaturari ere kutsatzen zaio Interneten eta blogen bidez. Lan baten edo bestearren arrakasta leihatilako bilketaren edo berrargitalpenen eta saldutako milaka aleen arabera neurtuko da. Eta ez dago zertan aipatu oso kalitate eztabaidagarria duten mementoko film edo liburu arrakastatsurik.

Aspalditxo, Antonio Martínez Menchén-ek fenomeno bat iragarri zuen, ia tonu apokaliptikoan, gaur egun hain ezaguna gertatzen zaiguna. Haur-literatura bati buruz hitz egin zuen, non estiloa eta forma bigarren mailakoak baitira, autoretza bera ere bai kasu askotan, bilbea, hondoa baita axola diona:

Kontsumo-gizarteak ez du ezartzen nortasunetik nortasunerako harreman hori, narrazio-formaren orijinaltasun-irrika posible egingo duena. Aitzitik, kontsumo-gizarteak harreman masiboa eskatzen du, forma estandarrak ezarriko dituen. Baliabide narratzaile berrien izaera industrialak izena-egilea, banako sortzaile gisa, baliogabetzea ekarriko du.³

Eta nobela herrikoian gertatzen zen hori, izengoiti ospetsu eta/edo komertzialen atzean inor ez baitzen izaren izenak esaten zuena (Juan Alarcón, Fernando Orviso edo Juan Gallardo orain Alar Benet, Alex Colins edo Curtis Garland dira); berriro gertatzen da *Gerónimo Stilton*-ekin, hurbileko adibide bat jartze aldera. Eta garai bateko *bolsilibroa* azal gogorreko liburuki lodietara igaro da, edo alderantziz, Dora León, Asa Larsson edo Toti Martínez de Lezearen saga herriko modernoekin gertatzen den bezala. Eta *Stilton* sagu izukaitza eta haren jarraitzaileak, dagoeneko beren irakurle-klub berezi eta oparoa ongi finkatuta dutelarik, *Reino de la Fantasía*-ko liburuki usaintsuen artean paseatzen dira, eta *Tintín*, *Asterix* edo *Los Cinco/Bostak* oroitzapenezko argitalpen berezietan aurkitzen dira.

Ipuin sekuentzial modernoari eta egungo ipuinlariari planteatzen zaizkion erronkei buruz, Marta E. Artisent⁴ irakasleak dio *bere laburtasuna eta liburuaren muga gero eta artifizialagoak* gainditzen dituela, eta hori,



3. A. Martínez Menchén: *Narraciones infantiles y cambio social*, Taurus, Madril, 1971.

4. Marta E. Artisent: «Ciclos, series y sagas en el cuento español moderno», *Primeras Noticias*, 220. zk., Bartzelona, 2000.

aurreko gogoeta horien argitan, haur- eta gazte-literaturari ere ongi egotz diezaiokegun zerbait da. Zeren eta literatura hori, eskolaren eta liburutegi publikoen eraginez, bere lorpen eta gehiegikeriez –narrazioari eta egiturari eta diseinuari dagozkienez– kutsatzen da, eta beste garai batean literatura herrikoi delakoak betetzen zituen gunek hartzen ditu, hura aurreko hamarkadetan bezain oparoa, hedakorra eta kontsumo lasterrekoa izan delarik beste hau azken hamarkadetan.



Literatura infantil y juvenil por entregas: colecciones, series y sagas

Entre los libros editados para niños y jóvenes, las creaciones en torno a un reseñado protagonista o grupo (Los Cinco, Harry Potter, Espacio Flanagan, Bob Esponja, Caillou, Bambulo, Gerónimo Stilton, Nur, Kika, Greg, . . .) son un modalidad de libros estrechamente ligados al ámbito infantil y juvenil. Se trata de narraciones envolventes en las que tienen cabida sucesivas historias, cada cual diferente a las demás del grupo en su argumento y a la vez semejante en su protagonistas, a los que sus destinatarios sienten como de casa. Y ésa es la magia de lo permanente cambiante, que nacía en el cuento tradicional y se ha mantenido en la estructura profunda del producto literario de masas que es, hoy, la literatura para jóvenes, una literatura que, a impulsos de la escuela y de las bibliotecas públicas, se contagia de sus propios logros y excesos y ocupa los espacios que otrora llenaba la llamada literatura popular, tan profusa, expansiva y de consumo rápido en nuestros días como lo era aquella en épocas precedentes.

S.C.

Serialized literature for children and young adults: collections, series and sagas

Among the books published for children and young adults, the creations around a well-known protagonist or group (The Famous Five, Harry Potter, Espacio Flanagan, Bob Esponja, Caillou, Bambulo, Gerónimo Stilton, Nur, Kika, Greg, etc.) are a type of book closely connected with the infant and youth sphere. These are absorbing narrations with the capacity for a succession of stories, each one different from the rest within their series in terms of plot, but at the same time similar in terms of protagonists, whom the target readers regard as familiar. And therein lies the magic of their changing permanency, which was born in the traditional story and which has kept going in the deep structure of the mass literary product which constitutes literature for young adults today. This is literature which, encouraged by school and public libraries, feeds on its own achievements and excesses and occupies the spaces that used to be filled by the so-called popular literature, just as profuse, expansive and prepared for rapid consumption in our day and age as it was in previous ages.

Translated by Sarah J. Turtle